

Goibekokale

1996ko abendua. 19zk

ELGETAKO ALDIZKARIA

BELENGO ESTALPETIK ELGETAKO ARKUPERA



F. IRIBAR
SALBADOR 9-1ª EZK.

Maderas Gallastegi, s.a.

MENDI UZTIAKETA ETA ZERRA MEKANIKOA

Azkarreta auzoa 48230 Elorrio (BIZKAIA) Tel. eta Faxa: 6583061.

EUSKAL Presoak EUSKAL Herrira

Azken hilabeteotan euskal gizarteko sektore guztietako jendea ari da parte hartzen Euskal Presoak Euskal Herrira ekartzearen aldeko gizarte mobilizazio erraldoi eta iraunkor honetan. Milaka eta milaka dira presoan aldeko ehundaka ekimen eta bestelako ekintzekin bat egiten dutenak, Euskal Herriko azken txokotik hasi eta gure geografiaren mugetatik kanpo bukatuz. Tamalez, ordea, komunikabide gehienek ez diote gizarte-mobilizazio erraldoi honi behar besteko oihartzuna ematen.

Guk oso argi dugu hau dela jarraitu eta indartu beharreko bidea. Euskal gizarteak agintariak presionatu behar ditu, euskal presoek behin eta berriz jasaten dituzten eraso bortitzak lehenbailehen buka daitezzen, dispersioaren politika, presoan aurreko zigorrari erantsitako beste bat, senide eta lagunei eragiten diena, bertan behera uzteko. Kartzeleroen jipoiak, mehatxu larriak, txantaiak eta probokazioak behin eta betikoz amai daitezzen. Politikoek, hitzez gain, beren erantzukizunari ekintzen bidez erantzun diezaioten. Gaixotasun sendaezinak dituzten presoek askatasuna eskura dezaten, eta zigorraren 3/4 bete duten 100 preso inguruk kalean jar ditzaten.

Funtsean, beraiek egindako Espetxeetako Legeriak berak agindutakoa bete dezatela. Zentzu honetan, esan behar dugu orain dela 15 egun Bilbon elkartu ginen pertsona uholdeak argi eta garbi adirazten zutela herri honen nahia zein den, eta egunero euren buruak demokratizatzen dituzten horretarako, demokrata ez beste edozein gauza direla.

LENITZ Eskualdeko LAB

Zorionak

Agur t'erdi lagunok.

Har ezazue eskerrik beroena hileroko aldirakaria, *Goibekokale* aukatzen duzenori.

Lan bikaina eta ugaria, hobeto esanda "ikaragarria" iruditzen zait herri kaxkar honetarako. Zorionak benetan. Aprobetxatzen dut mezu hau GABONAK ZORIONTZEKO eta Jaiak eman deizutela indarra eta kementa trinko eta gartsu aurrerantzean jokatze bide zail horretatik. Aurrera gazteak eta berriz ere zorion agurra. Aitona Joxe Mari.

Joxe Mari Elkoro

Oraingoan ere...

Izenburuak ongi dioen bezala, oraingoan ere gure kezkek azaltzera gatozkizue. Askorentzako beti protestan gabiltzan "horiek" besterik ez gara, baina geure arrazoiez kezka horiek azaltzen saiatzen gara.

Oraingoan gu guztion nortasuna sustartzen edo mamitzen duenari gure hizkuntza amari ematen zaion tratuari buruzkoa da kezka. Aspaldidanik udaletxean egon den arazoa izan da euskarari buruzko arazoa edo tratu desagokia. Nornahik jakinda ere tristura sentituko luke. Elgetan %85a euskalduna izanda, nabaritu dena edo bistan dagoena udaletxeak ez diola behintzat inongo erabilera aproposik eman. Gaiaren edo kezkaren harira joanda, esan beharko da udaletzeko aktak (batzar orokorrekoa, hirigintzako, obrak eta ingurugiroaren batzordekoa, haziendakoa...) jeta beste hainbat tramite erderaz edo euskara desagokian egin direla.

Honen aurrean ikusten da, idazkariak 4. urratsa izanda beste arloetan bezala saiatzeak ez lukeela kalterik sortuko udaletxean, alderantziz aurrerapauso bat izango zatekeen. Bes-

talde, EAJ/PNV-koei euskararen erabilerara eskasa aurpegiatu zaienean "zer dago gaizki, esan zelan idatzi behar den, horiek inozokeriak dira..." bezelako erantzunak jaso ditugu.

Udaletxeak, Euskal Herrian egonik eta herritarren %85a euskalduna izanik, bere euskararekiko errespetua eta zintzoa izan beharko luke. Gure ustetan, honela izan beharko litzateke eta beste euskaldun askoren ustetan ere bai. Besterik gabe, idazkariak bere 4. urratsa izanda (eta idazkaria zirikatze inongo asmorik gabe) eta esandakoak esanda, gauzak eraldatuko direlakoan agurtzen gara.

Elgetako Herri Batasuna

Urtebete

Urtebete pasatu da 1995eko abenduaren 18an Donostiako Artzai Onean, presoak euskadira ekartzearen aldeko lehen taldea sartu zela.

Urtebete osoan, 15 laguneko txanda bakoitzak, astebeteko baraualdia egin du. Guztira 53 txanda, 800 lagunez osatuta, Euskal Herriko toki guztietatik etorritako jendea, baita beste herrietatik etorritako Andaluzak, Bretoiak, etab.


Denen artean 4770 kg. galdu dituzte, 12.000 litro ur edan dira urte honetan.

Guzti hau legea betetzea eskatzeko eta presoak bere gaixotasun larriak edo 3/4ak beteta dituzten presoak kaleratzeko.

Politikoek sarri esan digute demokrazian ez dagoela biolentzia erabili beharrik edozein helburu lortzeko. Urtebeteko ekintza paketsu honek ezer gutxi lortu du. Presoak orokorrean orain urtebete baino urrutiago daude, eta hau aldatzeko asmorik ere ez da ikusten.

Zer egin behar dugu?

Zabaleta



Estampaciones

Elgeta

Estanpaketa orokorra,
Prensa automatizatuak 250 tonaraino,
Serie handietan espezializatua.



Lerro batzuek idazteko Gay izan

Eguerdiro bezala, Imanol eta Kepa badijoaz beraien eguneroko tabernara kafetxo bat hartzera. Jendearen esanetan oso mutil jatorrak, baina jende honen ustez ez dira normalak, beraien gaixotasun edo desbiazio sexuala dela eta pekatuan bizi dira. Homosexualak dira.

Egia esan, sexu bereko bi izakiren artean sentimendu horiek sortzea ez da arruntena, baina horrek ez du esan nahi normalak ez direnik. Gizarte honetako lege eta arauen gainetik bada beste lege indartsuago bat "Ama natura"-ren legea alegia. Nola izango da desbiazio bat gure instintu eta bihotzaren inpultsoak markatzen edo eskatzen diguna? Zenbat bider elizak baimendu edo bedeinkatu ditu sakramentu bidez, heterosexual den pareja baten interes eskutudun ezkontza folkloriko makilatua.

Beste batzuek onartzen dute sexu bereko bi lagun artean maitasun eta afektu bereziak egotea, baina hortik eta oheratzera...

Barkatu adisidide baina hurrengoan zure bakarkako momentu intimo-beroenetan, konturatu zertan zabiltzan. Ez ahal zara zure sexu bereko sexuari plazer (edo mimoak) ematen ari?

Norbaiten burutik pasako da, propaganda egiten edo jendea tentatzen nagoela, baina hau ez da partidu politiko bati afiliatuta egon edo sekta baten parte hartzea. Norbere barneko deien oihartzunak ezin dira ez saldu eta ez erosi. Sexua haragi eta fantasiazko mermelada bat da eta norberak aukeratu behar du gustokoen duen zaporea (ahal den heinean behintzat).

Xabat Leanizbarrutia



GUGGENHEIM Museoa

Duela hiru bat urte hasitako obra montruosoak, Guggenheim Museoa, badirudi datorren urtean bere atek zabalduko dituela. Honela, lanpostuen zerrenda irakurtzeko aukera izan dugu prentsan. Eta lanpostu horietarako betebeharreko baldintzak irakurtzean nire harridura azaldu ezinoko modukoa da. Harridura pasa zaidanean armorua izan da sentitu dudana: Lanpostu gehienetan ingelesa beharrezkoa (57 plaza-tatik 49tan), eta derrigorrezkoa ez den postuetan baloratu egingo da; euskara, berriz, 57 plaza horietatik 19tan baino ez da izango beharrezkoa.

Bestetik, ardurako postu batek baino ez du euskara derrigorrezko; ingelesa goi-postu guztiei exijitzen zaie, jakina, ardurako edo goi-postuak urtean 5 milioi pezeta baino gehiago kobratzen dutenak dira.


Datu hauek laburtuz, hauxe litzateke emaitza: ingelesa gehienentzat eta batez ere goi karguentzat; euskara, berriz, gutxi batzuei eta behe mailako postuei, batez ere. Zenbaki hauek aztertu ondoren, zer ulertu behar dugu: euskaldunok ez garela gai goi karguak betetzeko edo euskarak ez duela balio maila batetik gora erabiltzeko? Edota gure agintari politikoak axolagabekeria eta utzikeria jokatu dutela?

Badirudi, Guggenheim-en arduradun estatu-batuarek ingelesaren alde gogor egin dutela; ez dirudi gure arduradunek euskararekin beste horrenbeste egin dutenik emaitzei erreparatuz gero.

Museoaren fundazioa pribatua izan arren, gure poltsikoetatik ordaindutako zergen bidez finantziatu ondoren, zeri begira daude gure ordezkariak ingelesarekin egin dutena (EXIJITU!!!) gutxienez, euskararekin egiteko?

Honelako injustiziak onartezinak eta iraingarriak iruditzen zaizkit euskaldunontzat.

Bego Izagirre



Eusko Jaurlaritzako Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria



Aldizkari honek Elgetako Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honen argitaratzailea

GOIBEKOKALE

Argitaratzailea: Elgetako Gazte Asanblada. Salvador 2. Elgeta 20690. **Zuzendaria:** Iban Arantzabal **Koordinatzailea:** Ana Gillegi. **Erredakzio kontseilua:** Iban Arantzabal, Haritz Gallastegi, Ana Gillegi Oxel Erostarbe eta Bittor Gallastegi **Erredaktoreak:** Oxel Erostarbe, Gorka Arizmendiarieta, Olaia Jimenez, Eider Saratsua eta Iker Irazabal. **Maketazioa:** Bittor Gallastegi. **Argazkien errebelaioa:** Txuri-Beltz argazkizale taldea. **Komikia:** Igor Arizmendiarieta. **Horroroskopoa:** Aito Ubera. **Kolaboratzaileak:** Xabat Leanizbarrutia eta Bego Izagirre. **Administrazioa:** Esti Retolatza eta Susana Jimenez **Publizistak:** Onditz Villa eta Eider Etxaniz (Tel: 789085). **Banaketa:** Ikastola. **Tirada:** 600 ale. **Inprimategia:** GERTU koop (Zubillaga Oñati). **Copyright-a:** EGA. **Lege-Gordailua:** SS-475/95. **ISSN:** 1135-3538.

30 IDAZLAN LEHIAKETAN

- 4. mailatik hasita aurkeztu dituzte idazlanak. Gabonetako postalen artean erakusketa antolatuzen Kultur Etxean. Marrazkiak 3 urtetik gorako umeek egin zituzten-

Udaletxearen, Guraso elkartearen eta *Goibekokalek* elkarekin antolatutako idazlan lehiaketan partehartze handia azpimarratu behar da. 4. mailatik, Bergaran Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan ari diren neska-mutikoei gabonen inguruko ipuinak egin dituzte.

Antolatzaileek osatutako epaimahaiak, honoko ipuinak aukeratu ditu, beraien euskera mailagatik eta historiaren hariagatik:

4. mailan: "Ume harropu-tza" Iraitz Lazkanorena.

5. mailan: "Gabonak" Iratxe Castaño.

6. mailan: "Xabiren desioa" Paula Larrañaga eta Ainara Arantzenak.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan: "Non daude Olentze-

roren opariak" Iñaki Astigarraga.

Ipuinak aldizkarian argitaratuko dira. Lau onenez gain beste 7 aukeratu zituen epai-mahaiak liburuska baten atera eta umei banatzeko.

Jaialdia

Abenduaren 21ean partehartzaile guztiekin merienda bat antolatu zen eta ondoren jaialdi bat egin zen polikiroldegian, diskoteka mugikor batekin. Antola-tzaileen esanetan, denek egindako ahalegina azpimarratu behar da. Urtero antolatzeko asmoa dago. Maila hobetzen joango denaren susmoa dute. Bestetik aipatu ere egin zen Bergaran hasi diren umeen partehartze baxua; egoera berriak herriko ekintzetatik asko aldentzen zituela komentatu zen.



Lanik onenak, *Goibekokalen* argitaratuko dira. Denek sari ederra izan zuten merienda eta jaialdiarekin.

Bazkaria dohainik

Goibekokale aldizkariari aurtengo Gabonetako loterian 200.000 pta tokatu zaizkio. Hau dela eta dohaineko bazkaria antolatu du abenduaren 29rako Elgetako frontoian. Egun horretarako Gazte Asanbladak itsaskia (mariskoa) prestatuko du eta ondoren bildotsa Okindegiko labean egina. Bazkaria arratsaldeko 14:00etan hasiko da. Izen ematea aldizkariko telefonora deituz: 78. 90. 85. Bestela Haizea Tabernan eman zure izena, abenduak 29,

eguerdiko 12ak ingururako. Trikitilariak eta jaialdia egongo dira arratsaldean zehar. Animo!!!!

Gabonetako jaialdia

Urtarrilaren 4an egingo da aurtengo gabonetako jaialdia. Gaueko 9etan hasiko da polikiroldegian. Parte hartzaileen artean, eskolako umeak izango dira txirula jotzen. Ozkarbiko abesbatzak ere zenbait abesti prestatu ditu egun horretarako. Adolfo Jainagarekin astero soinua jotzen ari direnak ere, saio bat antolatu dute.

LUZIO ETA FAKUNDORI OMENALDIA

Abenduaren 14an "La Estrella" Eibarko elkarteak egin zion omenaldia hainbat txoko eta herritan ezagunak diren bi trikitilari hauei. Familia eta lagun artean pasatu zuten eguna. Polikiroldegiko bazkarira 50 lagun inguru bildu ziren. Bidebarrieta kalean dagoen "La Estrella" elkarteak antolatu zuen omenaldia. Jose Antonio Arizaga bertako kide batek esan zigunez, 8 urte inguru dira ezagutu zituztela. Sarritan ibili izan dira beraiekin afari eta egun paseatan. Omenaldia antolatzeko aitzakia berriz, "Euskal Herriak Fakundo eta Luzio bezalako jendea errekonozitu" behar duela izan da. Bikote hau bezalako gehiago behar direla ere gaineratu zuen Arizagak.

ZABALA

Lasao 6 Elgeta
Tel: 768075-6 768225
Faxa: 768201



HERMANOS S.A.

EHIZARAKO
ESKOPETA EGILEA

BAKOITZAK ESPRESATZEKO MODU BAT BEHAR DU

-Arnaldo Paterson Kubako dantzari ospetsuak sartu zuen mundu honetan Ane Mendiola-

Donostia eta Madrilen egin zituen dantzako lehen ikasketak. Bere senar izango zen Arnaldo Paterson ezagutu zuenetik bizitza aldatu zitzaion. Arnaldo Paterson duela bi urte izan zen Elgetan ikastaroa ematen. Patersonek Kubako dantza eskolarako eta mundu osorako teknika berriak ezarri zituen. Bi seme ditu Aitor eta Eñaut eta Oiartzunen bizi dira. 16 urte erakusten dihardu eta orain, Elgetarrekin.

Madrilera joan zenean, aktorea izan nahi zuen, baina jazz eta dantza klasikoa ikasten hasi zen. 18 urterekin Kubatik etorritako irakasle berria ezagutu zuen, Arnaldo Paterson eta ordutik aurrera salsa eta merengaren erritmoan sartu zen. Munduan zehar bere senarrarekin ibili zen, Frantzia, Italia, Kanada eta Estatuko hainbat

probintzia eta herritan.

Dantzarako senarekin jaio egiten al da edo hezi?

"Nik uste dut barruan eramaten den zerbait dela. Nire semeetako bati ez zaio batere gustatzen eta bestea berriz musika entzun orduko dantzan. Dena den askok daramagu erritmoa eta dantza gure barruan baina oso gutxiak dute erakusteko aukera. Denborarekin uste ez duzun pertsona horrek barruan gordeta zuena erakusten ari dela deskubritzen duzu".

Nolakoak dira Elgetako dantzariak?

"Toki guztietan bezala sorpresaz beteak. Gutxien espero duzun horrek bere izatea aske uzten duenean harri eta zur gelditzen zara. Haserako lotsa kendu ondoren jendea gustorago aritzen da".

Ba al dugu Karibeko dantza ikasteko erraztasunik?

Dudarik gabe. Desberdintasun bakarra, Karibeko erritmoetan gorputz osoko atalak mugitzen direla da.



Gorputzeko atal guztiak mugitu behar dira. Jaso dugun heziketaren ondorioz hori da geien kostatzen zaiguna.



Aspaldiko ohiturak berriz ere mugitzen. Antolatzeke denbora gutxi izan bazen ere oso ondo antzestu zuten jaiotza bizia.

BELENGO ESTALPETIK EZ ZEN JENDE ASKO PASATU

Aspaldiko urteetan utzitako ohitura berreskuratu da. Belen bizia berriz antolatu zen Elgetan Gabon gauez.

Udaletxe azpiko arkupean egurrezko estalpe eder bat eraiki zen. Lastoa, pinu adarrak... guzti honen erdian Ama Birjina, San Jose eta Haurra. Egun horretarako propio egindako erropak eraman zituzten.

Ama Birjinaren papera Goratxek antzestu zuen eta San Josena Asierrek. 6. mailakoen artean zozketatu ziren antzezleak.


Plazan jendearen aurrean denbora luzez egon ondoren haurrentzako bereziki antolatutako mezara joan ziren.

Datorren urtean astoa, idia, artzaiak eta agian herriko haur txiki batek egingo du Jesusen papera.

Hozkailuak eta izozkailuak aire giro-tua.



Salbador 21
Berraondokua 7
Tel eta faxa: 78 90 46



Elgetar guztioi gabon eta urteberri ona opa dizuet.

Liburutegiko arduraduna



Elorrio bide z/g 20690 Elgeta
Tel: 768050-789031 Faxa: 768243

TAPEM, S.A.

**Trokelak eta estanzazioa
TROKEL PROGRESIBOETAN ESPEZIALDUAK**

TABAKO SAREKADA ELGETAKO HIRU TABERNETAN

Abenduaren 7an Irundik etorritako mugetako Guardia Zibila, sarekada egin zuen kontrabandoko tabakoa atzemateko. Ondorioz, Ostatu jatetxean 158 pakete tabako atzeman zituzten.

Miaketak larunbat arratsaldean hasi ziren Ostatuan eta ondoren Zeleta tabernan eta Panaderokuan jarraitu zuten. Kontrabandoko tabakorik ez zuten aurkitu azken bi taberna hauetan, ezta Kioskoan ere. Tabernarien esanetan miaketak iraun zuen denboran toki

eta txoko guztiak begiratu zituzten, izozkailuak barne.

Denuntzia Donostiako Tabakaleratik zetorren eta miazte lanak Irungo mugetako Poliziak egin zituen.

Ostatuan aurkitutako 158 kaja horiekin milioitako isuna izan liteke. Tabako pakete bakoitzagatik 100.000ptako multa jarri dute beste leku batzuetan. Espediente irekia du dagoeneko Arantxa Aretxagaren Ostatu tabernak.

Tabernari batzuen ustez,

poliziak egiten duen ohiko lana baino besterik ez da izan. Beste batzuek ordea, herriko norbaitek abisua eman ondoren gertatutako ekintza izan dela esan digute, horretarako indizioak daudela gaineratu dute.

Elgetan izan ondoren Kanpazarren eta Sarako Jatetxean jarraitu zuten miaketekin. Hilaren 23an berriz ere Bergaran egin zuten sarekada.

Elgeta leku konfliktiboa dela esan zuten Guardia zibilek.

IRIZAR AUTOBUS KONPAINIAK DUEN ERAKUSKETAN EGONGO DA

Olabarriako autobusa Irizar konpainia-



ren erakusketara bidalia izan da. Autobus enpresa honek Ormaiztegin duen erakusketan ipiniko du hainbat urtean elgetarrak batetik bestera eraman dituen autobus zaharra. Candido Olabarriak esan zigenez, 40 urte tik gora dituen autobus hau Scania etxekoa zen. European zehar ere egin ditu

hainbat bidai, batik bat eskurtsioak egiteko erabiltzen zen autobusa zen.

Eugeniok esan digu Autobusa Beistegiri erosi ziotela. Autobusa baino lehenago kamioia izan zen eta istripua izan ondoren Olabarriatarrek erosi eta bidaiak egiteko moduan prestatu zuten. "Benetan autobus ona zen, kategorikua".

Azkenik merezitako lekua egingo diote erakusketa batean.

GRUPU
IFA
Tel: 76 80 98.
ALDI
Produktorik onenak, prezio onenean

Tel: 76 81 31
M^a Jesus Arrazola
VIVO
Janari
denda

Andoni Bolinaga
METALAK
FS718
Tel - Fax 76 80 64
ELGETA

IBAIBARRIAGA
GARRAIOAK
Tel: 768072
Salvador zeharbidea 2
ELGETA

7
L
E
A
P
A
9
N
D
E
9
A
M^a
ESTHER
Tel: 76 81 67

Iñurrategi anaien diapositiba emanaldia

Datorren urtarrillaren 17an, barikua, Iñurrategi anaiek Kangchenjungara egin berri duten espedizioaren diapositiba emanaldia ikusteko aukera eta Felix eta Albertorekin berba egiteko aukera edukiko dugu. Emanaldi hau Saloian izango da iluntziko 8,30etan.

San Bixente Jaiak Parteitxin

Nahiko aurreratuta dago iadanik Parteitxiko jaien egitaraua urtarrilaren 19rako dena prest egon dadin. Eguerdiko hamabietan Meza izango da San Bixenteren ermitan eta ondoren erromeria eta luntxa Zabarteko atarian.

Azken aldi honetan indar haundia hartu duten jaiak dira Parteitxiko hauek, azken hiru urtetan ere bertan egin delarik Arrasateko "Kataide" txakolinaren aurkezpena. Bertaraten direnek salda, txorixoa eta okelarekin 1996ko kosetxako "Chateaux Kataide" dastatzeko aukera ezin hobea edukiko dute.

Angiozarko Eskolakoak Bilboko PINean

Angiozarko Eskolako ikasle eta zenbait guraso Bilboko Gabonetako Parkean izan ziren pasa den abenduaren 16an. Urtean zehar egiten dituzten irteeratako bat izanik hau gustokoen dutena da haurrek (eta gurasoek), Gabon giro eta oporretan murgiltzeko aukera ematen baitie, hainbat jolas eginez egun guztian zehar.

HERRIKO ETXEARI ORDEZKOA BILATU BEHAR

Aurreko alean gaztetxean egiten ziharduten lanen berri eman genizuen, Gabonetarako lanok bukatuta egongo zirela adieraziz, baina berritze lanak hasi bezain laster agerian geratu da etxeak duen egitura arazoa pentsa baino askoz ere larriagoa dela. Izan ere egurrak nahiko ondatuta agertu dira, alde batzuetan zeharo ustelduta daudelarik, eta medikuaren kontsultorio horretan brintzarak nabaritu dira etxearen egoera adieraziz.

Etxearen egoera ikusirik Udaletxeko teknikoen iritzia eskatu da eta, lehen inpresio baten, kontontze lanok alperrak liratekela esan dute, jakinean gain etxe hau Hirigintza Arauen arabera normaz kanpo dagoela, hau da, etxe hau desagertzekoa zela bertan aurkitzen diren zerbitzuentzat ordezkotzea bideratzen zenean.

Egoera honek geldirik zeuden negoziaketak bizkortzea ekarri du, Hirigintza Arauetan aurrikusten zen eta zein izango litzatekeen eraikuntza honen ordezkotza: Gariketxe deituriko jauregia, aspaldiko urtetan hutsik dagoena eta aukera guztiak eskaintzen dituen bertan kokatzeko oraingo etxeak betetzen dituen zerbitzuak (medikua, gazteentzako lokala, Herriko biltegia eta eskolako materialen biltegia) eta beste batzu ere bai behar bada (liburutegia, bileretarako gela,...). Etxe hau bideratzeko elkarrizketak geldirik bazeuden ere eta oraingo egoera ezin daitekela asko luzatu ikusirik, Bergarako Alkateak berak



Gariketxe izan daiteke Herriko-Etxe egokiena.

hartu du bere esku negoziaketa aurreratzea.

Angiozarko Plazan dagoen Herriko Etxe hau 1866an eraiki zen orduko angiozartar guztiek hartu zutelarik parte etxe hori egiten. Bere lehen funtzioa junten lekua izan zen, baserritarren sindikatua (erosketak egiteko kooperatiba) ere bertan egon zelarik 1970erarte. Medikua kontsultorioa ere hortxe egon izan da aspalditik, eta azpiko aldean azken aldi honetan biltegia eta gazteentzako lokala zeuden.

Mende eta laurden beteta dituen etxe honi badirudi jubilatze-ko ordua heldu zaiola, Gabon hauetan erregalu ezin hobea izango litzateke Gariketxe etxea herriaren beharretarako lortu dela jakitea.

Taberna Zaharra
jatetxea

Bazkari eta afariak tel: 76. 21. 21

Angiozar

Goio Sarasua

Igeltzeritza lanak

Teilatua

Sukaldeak

Etxeurreak

Komunak

Otzango Behetako Baserria. Tel: 860156


Zetarako dia gabonak?

Gabonak diala ta pentzau dou galdera hau eittia, gabonekin zerikusixa dakalako ta gabonak danok ez doguzelako bardin pasatzen.




Bihargiña (33 urte)

Gehixenez familiariakin egoteko epokia da. Urtian behin izaten da familiaria holan, elkartuta moduan. Lehen erlijio aldetik zekan garrantzixa galtzen doa.



Bihargiña (21 urte)

Ondo pasau ta familiariakin egoteko, nahiz ta gabonak erlijioariakin zerikusixa euki, garrantzixa galtzen doiaz poliki-poliki. Batzuk opor moduan hartzen dittue.




Jubilaua (60 urte)

Gabonak ondo jan ta edateko dittuk, familiariakin egon, ondo pasau, aldi hau ez dok juergak botatzeko familiariakin egoteko dok.



Etxekoandria (58 urte)

Nik pentzatzen dot gabonak familiariakin pasatzeko diala, familiariakin pasatzeko ta opor egun batzuk moduan be hartzen douz. Familiarian ondo jan ta edan be eitten dou. Gaztiak juergara be urtetzen dabe.



Jubilaua (71 urte)


Gabonak neretzako etxian, familiariakin pasatzeko izaten dittuk ta ez oporretara juateko. Gaztiak be afaritxan ta etxian egoten dittuk nahiz ta gero gabian urten.



Jubilaua (76 urte)

Gabonak, ba familiariakin pasatzeko dia, kome ni dana eiñez, ondo jan, barriketari eiñ...

Familiariakin jardunian egoteko dia.



Jesús Mari Montiel
**ITURGINTZA
ETA BEROGAILUAK**
Aretkale 3.
Mo: 908773950 Eibar Tel: 700719

**KONPONKETAK SUKALDE
ETA BAINUGELATAN**

itzulpenak

lanak ordenagailuz
interpretari lanak
transkripzioak



Tel.ak: 6583017 - 6821294

♈	Aries: Pañuelua erabili kandelak gogortu baiño lehen.
♉	Taurus: Kontuz ahuakin albokuai belarrixa jan barik.
♊	Geminis: Poltzikua ondo josi, ez daukak/daukan dirua botatzeko lañ ta.
♋	Cancer: Gauzak galdetzia laga, gero ez dok/don ezer topauko ta.
♌	Leo: Kriston goleadoria haixela? Bai. Baiña nun sartzen dittuk/dittun golak?
♍	Virgo: Labadoriai noixian behin jai hartzia ondo etorriko Jakok/jakon. zikiñoi.
♎	Libra: Zurekin txarrixakin baiño odoloste gehixau eiñ leikez.
♏	Escorpio: Kopa asko dittuk/dittun? Ez jakat/jakanat dudaik baiña likoriakin beteta.
♐	Sagitaris: Etxaok/etxaon hi modukoik inguruak apurtzen ibiltzeko.
♑	Capricornius: Ez hari juntau ezkerri batekin. Ez dua/dona gauza onik ekarriko.
♒	Acuarius: Izarra izango haiz bai baiña... Baiña gabontako piñuan.
♓	Piscis: Ezik/eziñ hainbeste futz eiñ bestela alboko piñuak botako dittuk/dittun ta.

Jabi Redondo biharbarikua (30 urte)



ropa normala.
utua ala motorra? Autua ehixau, motorra be 1statzen jata baina jausi tten nai.
etarako kotxia? Berakin iltzeko.
Iusika gustokuena? rikitixa.
inaririk gustokuena? xokolatia. **Ta erateko?** Ur inerala ta Kasa.
abonak ospatzen dozuz? ai.
irolik gustokuena? Palia esku pelotia, frontoian kotan egoten nai ikusten.
etarako dia gabonak? ndo pasatzeko.
ñ dotzuen azkenengo rregalua? Radixo bat eta mila duro Tenientia dan abogau batek lizentziau nintzianian eiñdakuak.
Zenbat poste dare plazan? Inoiz ez dittut 1.

Ze da bestietan gehixen gustatzen jatzuna? Ezer ez jata gustatzen. **Eta gutxien gustatzen jatzuna?** Jentiana gaizki eitten dabela berba.
Erretzen dozu? Bai, asko.
Gaba ala eguna? Bixak baiña... Gabia gehixau, molestutzen doztan jente gutxiau ibiltzen dalako.
Kalian haiñbeste denbora pasauta gauza askona enteratzen za? Ez, bestien beste enteratzen nai.
Jasteko erroa gustokuena?

Elgetatik aparte zein herri gustatzen jatzu gehixen? Bat bez espezialian.


Telebisiñua edo radixua? Etxian naonian telebisiñua ta kalian naonian radixua.

Programarik gustokuena? A3eko programazinua, pelikulak ta dokumentalak, radixuan musikia. Trikitixa entzuten dot.

Goibekokale irakurtzen dozu? Ez dakit euskeraz irakurtzen baina erretratuak ikusten dittut.

HAIZEA

TABERNA



giro atsegina
lagunartean
egoteko.
Tel: 768256

ELKORO TORLOJU LANTEGIA

DEKOLETIA ETA FIJAZIO SISTEMAK

Berraondokua z/g 20690 Elgeta
P.K. 256 - 20600 Eibar (Gipuzkoa)
Tel: 943 768200 - 768125 Faxes: 768203

OLENTZERO, EUSKALDUNON MITO EZEZAGUNA

-Garai hauetan Olentzerori buruz erantzunik ez duten hainbat galdera egiten dizkiogu gure buruari-

Euskal Herrian oso ezaguna dugu Olentzero. Jende askok ordea, gauza gutxi dakizki berari buruz. Garai hauetan askok eta askok galdera berdinak egiten dizkiogu gure buruari. Nor da Olentzero? Nondik dator? Corte Inglesaren asmakizun bat al da? Galdera hauei eta beste batzuei erantzuna aurkitzen laguntzeko honoko erreportaia hau prestatu dizuegu.

Olentzero izena iparraldetik (frantziar eragina dela medio) hegoalderako bidean barrena etorri izatea ia edozein zalantzatik

kanpo dago, haren hedadura eta harekin zuzenki erlazonaturiko ohiturak ez baitira Baionako apezpikutzak Felipe II.aren garaietaraino izan zituen lurraledetatik kanpora zabaltzen, eta sasoi hartan lurralde haiek politikoki espainiarrrak ziren. 1566.ean, Felipe II.ak Iruñeako diozesiaren parte izatera sar zitezela eskatu zuenean, Baionako apezpikuaren mende zeuden lau artzapezpikutza nafar eta gipuzkoarrak ziren: Hondarrabikoa, Bortzirietakoa, Doneztebekoa eta Baztanaldekoa. Baina Erdi Aroan, XII. mendearen bukaeran, Baionako apezpikuek Donostia, Herna-

ni eta beste lurraldeen gaineko jurisdikzioa omen zeukaten. Beraz, esan daiteke, Frantziako "O de Noël" kristautarren baliokidea dela Olentzero, enbaxadore bezala agertzen dena.

Nahiz eta Olentzero enbaxadore kontsideratua izan, ez zuen inoiz oparirik ekartzen. Emeterio Sorazu antropologoaren esanetan "Olentzerok opariak ekartzearen ohitura orain dela 26 urte hasi zen, ikastolak sortu zirenean. Uste izan zen, aintzinako ohiturei nortasuna emanez gero alde batera utziko genuela kanpoko kultura. Horregatik ematen zaio Olentzerori opariak ekartzeko beta".

Olentzeroren irudi ezberdinak

Olentzero lanbidez ikazkina dela, Oiartzunen eta Bidasoaldeko herri guztietan sinisten dute. Elduaieen aurpegia beztuta agertzen dela esaten dute bakarrik. Baina aipaturiko sinismena adierazgarria da, Berastegikoa bezala: bertan, Olentzero otearekin karga-karga eginda eta eskuan igitaia dakarrela diote. Edonola ere, beti suarekin du erlazioa. Emeterio Sorazu ez dator bat Olentzerori Berastegin ematen zaion irudikapenarekin, berak dienez "Kontakizun askotan figurazioa ematen zaio Olentzerori. Olentzerok ez du igitairik, agian



Elgetan berandu hasi zen Olentzeroa ospatzen.

OSTATU
JATETxea

Gudarien Bide
Tel: 76 80 23
ELGETA

Eguneko menua 800 pta.
Karta.

LENIZ

AUTO ESKOLA

Arana, 13 Tel: 714186
ESKORIATZA

Aldai, 9 Tel: 794604
ARRASATE

atxurra edo aizkora izango ditu mendian ibiltzen delako".

Olentzero, mutil batek, panpina batek nahiz haur batek irudika dezake. Beran, adibidez, 1934. urtean Olentzero haurra eta Olentzero mutila zeuden. Oiartzunen, egunez paseiatzen zuten panpina. Panpina groteskoa. Mutilak eske irtetzen ziren gauetz beste panpina batekin, edota haietariko bat mozorrotzen zen eta ahoan pipa eta eskutan kriseilua zeramala zihoan mutila (Elgetan egiten den bezala). Hau beste hainbat herritan ikus daiteke: Elduaian, Pasaia, Andoain eta Tolosan. Baina beste batzutan Olentzerok patu berezia darama. Barandiaranek "Leitzan Gabon egunean etxeko lehio eta balkoietan lastozko panpina bat jartzen dute, galtza edo gonaz jantzita, eta horrek, bertakoen esanetan, Orantzaro (Olentzero) irudikatzen du" esan zuen.

Solstizioko enborra eta Olentzero

Lehen lehenik, Olentzero gabonetako enborrarekin erlazionaturik aurkitzen dugu, hortaz, enbor horri Oiartzunen "Olentzero-enbor" deitzen diote, eta bertute edo ahalmen bereziak leporatzen dizkiote. Nafarroako zenbait haran eta tokitan Gabon eta Eguberri egunei "Xubilaro" edo "Xuklaro" deit-

"Olentzerok opariak ekartzearen ohitura orain dela 26 urte hasi zen, ikastolak sortu zirenean. Uste izan zen, aintzinako ohiturei nortasuna emanaz gero alde batera utziko genuela kanpoko kultura. Horregatik ematen zaio Olentzerori opariak ekartzeko beta" dio Sorazuk.

zen dietela esaten du Azkuek. Izen hau askoz zaharragoa da bere kide "gabon" edo "eguberri" hedatuak baino, eta kristautasunaren aurreko egoera adierazten digu "Enbor-aroa" edo "eguberri" deituko zieten aintzinako euskaldunek, hasera batez, neguko solstizioko jai egunei. "Olentzaro", "Gabon" eta horiek baino hedatuagoa den enborraren -"gabonzuzie"- izenak askoz ere modernoagoak dira.

Eskiroz eta Elkanon (Nafarroa) ez dute enbor bakarra jartzen sutondoan, hiru baizik: Jainkoarentzat bat, Birjinaren ohoretan bigarrena eta familiarentzat hirugarrena. Urteberri goizean hiruretan lehena etxeko atarian ezartzen dute eta abere eta animalia guztiak haren gainetik pasarazten dituzte. Urteberritan erritua ospatuko ez balitz, San Antonio egunean beteko litzateke. Horrela, animaliak urte osorako gaitzetik edo bestelako ezbeharretatik libre geratzen direla sinisten dute. Horrelako txosten bat jaso zuen Azkuek Arakilen eta berak kontatzen digu Ibarrurin (Bizkaia), piztiak akabatzeke, Eguberri eguneko errautsak etxe kanpoan nola sakabanatzen dituzten, gurutz bat antolatuz, Doneztebe egunean.

Argi dago Olentzero, jatorriz behintzat, ez dela Euskal Herri guztian hedatu, ekialdeko Gipuz-

koan eta Nafarroako mendebaldeko herri batzuekin bakarrik lotzen da.

Bibliografia:

- Julio Caro Baroja "Euskal Jainko eta Jainkosak, Olentzero eta Sorginak" Gaiak
- Emeterio Sorazuren aipuak.



Olentzerok irudipen ezberdinak ditu Euskal Herriko puntu ezberdinetan.

*Olentzero
enbaxadore moduan
agertzen zaigu
mitologian*

Antonio Rodrigues Da Cruz

Galdaragintza arina

IAPAM

Soldadura homologatuak

Hoditeria

Erremitteritza

BERRIONDOKUA INDUSTRIALDEA, 8 - ELGETA

Tel: 76 81 01 Faxes: 78 90 14

Kartaka jolasteko giro egokia

W.C.

Kopa bat

Tel: 768093

P a t x i **Taberna**

GURE LEHEN ESPERIENTZIA KANPOAN

Kaixo *Goibekokaleko* irakurle guztioi. Gu DBH-ko 1. maila egiten ari gara. Eta zuei kanpoan izan dugun lehen esperientzia kontatu nahi dizuegu.


Guretzako autobusean egunero jeitxi eta igotzea ez da oso atsegina, gainera hemendik Bergarara joan beharrean Osintxutik buelta ere egiten dugu, bertan Osintxuko mordo bat hartuz. Horren arabera lehenago esnatu eta jeiki behar gara.

Eguaztenetan ordutegi desberdina dugunez institutokoekin igotze behar izaten dugu eguerdian eta autobusean justu-justu sartzen gara. Leku hutsik ez da gelditzen.

Jantokiko esperientzia ere ez da oso ona izan, izan ere, lehen etxean ematen zizkiguten janari batzuk ez baziren onak orain komedorekoak etxeakoak baino eskasagoak.

Komedorean jende dexentek bazkaltzen du, horien artean DBH-ko batzuk eta San Martineko beste batzuk. San Martineko haurrak dira txikiak, haur eskola lehenengo mailatik seigarren mailarartekoa da.

Komedorean andra bat arduratzen da bazkaria egiteaz, DBH-koei zerbitzeaz beste bat eta San Martinekoei zerbitzatzeaz beste bat.



Autobusa ez da oso atsegina. Joan-etorrian denbora asko galtzen da.

Oraingo urtean ikasgai berri batzuk ere sartu dizkigute. Adib.: teknologia, tailerrak eta etika. Asignatura horietara ongi moldatu garela uste dugu.

Esan beharra dago Elgetatik nibel onean jeitsi garela orokorrean, nahiz eta ikasgairen batean zailtasunak izan.

Bergara jeiste honek lagun mordo bat egiteko ere balio izan du. Hasieran lotsatu egiten ginen beraiegana hurbildu eta beraiekin hitz egiten, baina denbora aurrera joan ahala konfidantza hartzen joan ginen eta orain beraien lagun onak gara. Jende desberdin asko dago:

tontoak, majoak...

1. mailako Elgetako denok gela berdinean gaude beste 15 pertsonekin. 7 antzuolarrak, 7 bergarar eta azkenik uberar 1.

Azken finean Bergarara jeisteko esperientzia hau ez da hain txarra izan zeren, lagun asko egin ditugu. Asko ikasten dugu eta asko dibertitzen gara. Hurrengo urtean doazentzat ez izan beldurrik, han ongi egoten da eta.

DBH-ko 1. maila.

Berezitasuna:
Buztana. Pintxo
gozoak,
otartekoak.



tel:768284



KONTXI
ARRANDEGIA
Salbador 5 Tel: 768009

EROSLE



M. Asun Agirre
Salbador 26. Tel: 768190

OKELAZ BETETAKO INDIOILAR ERREA
Sukaldariak: Rosa M^a Boehm. Elena Zabala.
(Elgeta Hotela)



NOLA PRESTATU:

Indioilarra barrutik gatzitu eta pipermina bota.
 Ondoren, betegarria prestatzen hasi: okela pikatua, okanpasak (hezurgabeak), ogi mamina, arraultza eta koñaka nahastu guztiekin masa bat lortu arte.

Masa prestatutakoan, indioilarra bete. Betetakoan, josi betegarria kanporatu ez dadin.


Labeak beroa egon behar du 200 gradutan gutxigora behera, indioilarra ondo egin karrask egin dezan. Indioilarra paparra behera begira sartu eta basokada bat ur bota. Ordubete horrela eduki. 10 minueturo ureztatu falta somatzen bada. Buelta ematerakoan, ur basokadaz gain ardo basokada bat gehitu. Bi ordu hauetan indioilarra prest izango da. Kontutan hartu beharrekoa azken 10 minututan ez ureztatzea eta bi ordu horietan labetik ez ateratzea.

Labetik ateratakoan osorik edo zatikatuta zerbitzatu daiteke. Hondarrean gelditzen den saltsari, maizena apur bat eta salda gehitu sendotzeko. Azkenik iriztontzitik pasatu. Indioilarra saltsa eta patata purearekin aurkeztu; azkenok banaka jarri.

Aukeran, hornitzeko beste jangai bat lonbarda (aza gorria) izan daiteke. Barazki hau zatitu. Kazolan, kipula oliotan biguntzen denean, lonbarda gehitu eta 10 minututan estalita egosten eduki. Lonbardak egostean kolorea galtzen duenez, gatza eta ozpina bota eta beste 20 minututan egosi kolorea berreskuratzeko.

OSAGIAK: (6-8 pertsonentzako)

- 4 kilo inguruko indioilarra.
- Kilo 1/2 okela pikatua : txerriarena eta behiarena erdi eta erdi.
- 100 gr. okanpasak.
- Ogi mamina.
- Arraultza bat.
- Gatza.
- Pipermina.
- Koñaka.




Gomendioa: - Indioilarra samurra izatea egoki litzateke. koipe gutxi badu gantzutu egin daiteke.
 - Alemaniar erara prestatuta dagoen gabonetako jangai honi lagun egiteko, txanpaina da aproposena baita bestelako ardo zuri nahiz gorriak.



URONDO
elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola, 26. Kataide industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa.
 Tel: 797815/771042 Faxe: 771476 ARRASATE.



Abenduak 30ean futbitoko bilera

Hilaren 30ean futbitoko bilera egongo da. Bertan taldeen izen emateak, santzioak eta beste hainbat gauza tratatuko dira. Aurten partehartuko duten talde kanpotarrak inoiz baino gehiago izango dira batez ere mutiletan (4 espero dira). Nesketan ere baliteke Durango talde bat apuntatzea. Abenduaren 18an egin zen bileran aipatu zenez, posible da aurten partiduetara ez aurkezteagaitik edo ez arbitratzeagaitik lau punto kentzea. Argi ibili!

Adurtzako finalean Gutierrez eta Arantzeta gausi

Adurtzan jokaturako 2. mailako finalean derbytzat hartu daitekeen partidua jokatu zen. Alde batetik Gutierrez (Ubera) eta Arantzeta genituen beste aldetik berriz, Peñalver eta Barrigon. Partidua nahiko ondo hasi zen azken bi hauentzat 4-1 aurreratu baitziren, baina berehala Eñaut eta "Guti"-k beren nagusitasuna agerian utzi zuten eta partidua irabazteko ez zuten inongo arazorik izan. Azken emaitza 22-7koa izan zen.

Ubera II.ak berriz, Interclubseko finala jokatu du Mintegiren kontra. Printzipioz bera dela faboritua aitortu digu bere anaia Aitorrek. Partidu hau Oreretan/Erreterian jokatu da.

Azken honek berehala hasiko du "Liga de Honor" delakoa Ozkarbiren elastikoa defendatuz. Hasiera batean Iñurategirekin jokatzekoa zen baina esku bat hautsirik duenez Errasti II.aren (Azkoitia) jokatu ditu lehen partiduak. Beraien helburua maila horretan mantentzea da.



Fermin Iribar, Jaime Ulazia eta Felix Aizpiri lortutako garaikurrekin.

GABONETAKO BOLO TXAPELKETA JAIME ULAZIARENTZAT

Bolatoki tabernak urtero antolatzen duen bolo txapelketan (hiru txirlo) Jaime Ulazia eibartarra atera zen garaile. Txapelketa hau aurreko alean aipatu genizuen bezala bost ihardunalditakoa izan da, beraz, erregularrena izan da garailea.

Txapelketa ez zen azken ihardunaldirarte erabaki aurrean aipatu dizuegun Ulazia eta Fermin Iribar hamahiru punturekin heldu baitziren. Bazirudien azken tiraldiak oso gogorrak izango zirela baina gaueko lehen jaurtitzaila izan zen Jaimek aukerarik gabe utzi zuen Fermin Iribar bi tiralditan bost txirlo botaz. Ferminen txanda heldu zenerako txapelketa ia eraba-

kita zegoenez -irabazteko sei txirloak bota behar zituen- ez zuen oso kontzentratu bota bi tiralditan txirlo bakarra joz (txirlo honek bigarren postua ziurtatu zion). Hirugarren posturako ere borroka polita izan zen, azkenean Felix Aizpiri (Bergara) lortu zuen.

Txapelketako huts bakarra jendearen erantzun eskasa izan da.

Sailkapena

- 1-Jaime Ulazia 18 txirlo
- 2-Fermin Iribar 14 "
- 3-Felix Aizpiri 12 "

Boloetako saskia

Antonio Askasibar

Larunbata eta igandetan bertako babarrunak, saiheskia erreta.

tel:768273

BILTEGI DENDA

Zugandik gertu behar duzun beste

Salbador 24 Tel: 768206

M^a Karmen Lenzeria

Lenzeria eta kosmetika gaiak

Salbador zeharbidea.

Tel: 789040

Olaia Jimenez kirol zinegotzia

"DENOK GURE ALDETIK GEHIAGO IPINIKO BAGENU GAUZAK BESTELAKOAK IZANGO LIRATEKETE"

Olaia Jimenezek aurki beteko ditu bi urte kirol zinegotzi karguan. Futbito txapelketa epe hauetan antolatzen hasten denez, berarekin egon nahi izan dugu txapelketaren antolakuntza eta bere bizitzako beste zenbait arlo nola dihoazkion jakiteko.

- Zenbat denbora daramazu kirol zinegotzi?

Joan zen urteko maiatzaren 28an hartu nuen kargua. Beraz, datorren maiatzaren 28an bi urte beteko ditut zinegotzi.

- Zein balantze egingo zenuke?

Nik ez dut balantze handirik egiteko aukerarik. Kiroletan ez dugu gauza handirik egiten. Betiko iharduerak antolatzen ditugu, hala nola, futbitoa eta Mountain Bike frogak. Horretaz aparte ez dugu

gauza handirik egiten.

- Orain badirudi arazoekin zaudetela. Izango al du ondoriorik futbito txapelketan?

Litekeena da. Ondorio hauek batez ere arduradun aldetik izango dira. Orain arte gure ardura izan da Kirol Batzordea eramatea. Gure erabakiak ezin ditugu guk nahi bezala aurrera eraman, gure gainetik dagoenak hartzen baititu azken erabakiak. Adibide gisa frontoiko pintaketa dugu. Batzordeko inori abisatu gabe frontoia pintatzeko agindua eman zuen gu alde batera utziz.

- Zein kirol gustatzen zaizu gehien? Praktikatzen al duzu?

Gehien gustatzen zaidan kirola futbitoa da. Telebistan ikusteko nahiago dut tenisa. Saskibaloia eta eskubaloiko euskal taldeak ere jarraitzen ditut. Praktikari dagokionez futbitoan jokatzeko dut eta noizean behin mendira joaten naiz.

- Zinegotzi izateaz gain, beste zerbaitek egiten al duzu?

Gutxitu psikikoen heziketa ikasten ari naiz eta oso gustora nabil. Horretaz gain, *Goibekokalen* eta *Gaztetxean* ere nire laguntza eskaintzen dut. Gustoko dut herriko ihardueretan parte hartzea eta Elgeta bezalako herri batean are gehiago.

- Elgetan nahikoa kirol egiten dela uste al duzu?

Ez daukat aukerarik galde-



Olaiak ez duela kirol asko egiten aitortu zigun.

ra horri erantzuteko. Datuak erabiliz ikusi daiteke hilabete batzuetan beste batzuetan baino kirol gehiago egiten dela, baina ez dakit asko den ala gutxi. Azpimarratzekoa da kanpoko jendeak herrikoek baino gehiago erabiltzen dituztela gure kirol instalakuntzak.

- Agintarietok zerbaitek gehiagi egitea posible duzute uste al duzu?

Bai, noski. Denok gure aldetik gehiago ipiniko bagenu gauzak bestelakoak izango liratekete.

- Zergatik ez da antolatzen beste kirolekin txapelketarik?

Futbitoak betidanik izan du begirune gehiago Elgetan. Ikusten da saskibaloian ere jendea ibiltzen dela baina txapelketa bat antolatzekotan kanpora begira izan beharko lukeela uste dut. Bestalde, aurreko urteko gabonetan ere antolatu genuen squash txapelketa baina oso jende gutxi apuntatu zen.

MOTZIAN

- Errealala ala Athletica? Bata ere ez.

- Futbitoa ala saskibaloia?

Futbola.

- Nor miresten duzu? Espetxean dauden denak.

- Zein egunkari irakurtzen duzu?

Egin eta Euskaldunon Egunkaria.

- Etxeko lanik gorrotagarriena?

Amaren bronka entzutea.

- Gomendio bat? Ez laga

engainatzen, zabaldu begiak.

- Noiz joan zinen azkenengoz

elizara? Ez dakit. Hileta batetara.

- Koadroak ala posterrak?

Kuadroa.

- Kirolari bat? Gutxitu psikiko-

fisiko guztiak.

- Bertsolari bat? Egaña

IRAMA

Instalazioak eta mantentze lanak

24 orduko zerbitzua
mensatel: 900282828
abonatua: 247262 tel:
789057-768025

ANA LIBURUDENDA

Zatoz beste dimentsio batetara.

Tel: 768078

URIARTEKO AMAREN BABESEAN

-Uriarte auzoa Uberatik herriraino hedatzen da. Elgetan baserri gehien dituen auzoa da-

Oraingo alean Uriarteko auzoa dugu ikusgai. Elgetako auzoen artean baserri gehien biltzen dituen da. 15 baserrik osatzen dute guztira Uriarte auzoa eta hainbeste baserri izatearen arrazoietako bat inguru laua izatea da. Baina arrazoi indartsuena auzoan dauden bi ermiten inguruan eraikitzeko aspaldiko ohitura dela esan daiteke. Auzoa, Jaloztan hasten da eta ia herriraino hedatzen da.

Uriarteko auzoak bere izena Uriarteko Amaren ermitatik hartzen du. Ermita honez gain, San Antoniokoa ere badago. Ermita bi eta Ama Birjinaren irudia gordetzen duten beste bi aldare txiki ere badaude.

San Antonio eta Uriarteko Ama

San Antonioren omenez eraikitako basiliza, izen bera duen baserriaren aldamenean dago. Ermita honen lehen erreferentziak XVII. mendearen amaierakoak dira 1698 urtekoak hain zuzen ere. Oraindik ere bertan ematen da meza urtean behin. Inguruak eta ermita bera ere nahiko egoera onean daude. Bertan dagoen irudi



Argazkian ikus daitekenez, XIV. mendeko Uriarteko Amaren ermita behera erortzeko puntuan dago.



Agarre baserria, urtetan auzokiderik gabe egon bada ere, bikote gazte bat bizi da orain bertan.

batean margotuta daude San Antonio, San Anton eta San Adriano. Herriko jende askok San Adriango ermita izenarekin ezagutzen du.

Aurreko ale batean idatzi dugu auzo honetan dagoen Uriarteko Amaren ermitari buruz. Behin eta berriz azpimarratu dugu historikoki duen garrantzia. Elgeta, Ubera eta inguruetakoa lehen otoi

lekua izan zen. XIV. mendean eraikia izan zen eta lehen erreferentziak 1339koak dira. 1936ean lehen aldiz berriztatu zuten, baina gerratearen ondoren deusestuta gelditu zen. Ia desagertu da, eta bertako irudiak Elgetako

parrokian gordetzen dira. Ermitaren ondoan, Uriarteko Amaren irudia dago aldare txiki batean. Pedro Zelaiak eta Juan San Martinek ermita honen egoera tamalgarria ikusi zuten eta beraien liburuetan idatzi zuten.

15 baserri

Baserriei dagokienez, Jaloztan hasi eta bidearen eskubitara, Jalotza, Albitxu eta Altube ditugu.

Jalotza baserriaren izena izatez Jaolatza da, Elgetako erakuntza zaharenetakoa da. Baserri hau lehenago dorretxe bat omen

Uriarteko Amaren ermita (XIV. mendea) inguruan lehenengo kulto lekuetakoa izan bazen ere, gaur egun egoera penagarrian aurkitzen da.



Altube baserria Elgetako handiena dugu. Etxe honek dituen leiho guztiak ikusita, baserria baino jauregia dirudi.

zen. Diego de Ibarra konkistatzailearen jaiotze lekua izan zen (XVII. mendean).

Altube baserria, Elgetako handiena dugu. Baserria baino jauregi itxura dauka, sekulako leiho pila dauka. Baserri honi buruzko lehenengo idatzizko erreferentzia 1625ekoa dugu.

Bidearen ezker aldean berriz, Olei edo Olaegi baserriak aurkituko ditugu lehenik, eta hauen ondoren, Iribeturriaga edo Txaraka, Aranburu, Sagastitxu, San Antonio, Etxetxo, Sesto eta Sestoazpi.

Oleiko baserriek lau etxebizitzako auzotxoak osatzen dute. Olei

baserriei buruzko lehenengo erreferentzia 1625 urtekoa da. Izenaren arabera inguruan burdinolaren bat egongo zen garai hartan. Oleitik gorantz etorritik, zuhaitzen ostean erdi eskutatuta Iribeturriaga edo Txaraka baserria dago. Hemendik erreka-zulorantz abiatuz eta pinadi erdian dagoen zelai baten behera joan ostean Aranburuko baserri ederra aurkituko dugu. Baserri hau Isusigarra auzora dago begira, Lagun artea errota gainealdean.

Oleiko rektaren goiko muturretik abiatzen den bidezidorra jarraituz, Agarre, Sagastitxu San Antonio eta Etxetxo aurki ditzazkegu. Sagastitxu, Sagastigutxia

Auzo hau Elgetako paraje lauena da, 14 baserri osatzen dute eta jende gehien bizitzen den auzoa dugu Elgetan.

izenarekin ezagutzen zen, eta izenaren arabera inguruan sagar arbolak ezin ziren ugari izan. San Antonio baserria izen bereko ermitaren alboan dago, eta Etxetxo, Uriarteko amaren ermitaren aurrean.

Gelditzen zaizkigun bi baserriak Sestoazpi eta Sestokoa dira. Berauen jatorrizko izena Sostoa da. Sestoko baserrian jaio zen Juan Bautista Aranburu marinel famatua. Marinel honek eginarazi zuen Elgetako parrokiarako gure 10. alean aipatu genuen triptikoa, hau da XVI. mendeko hura, eta ez gaur egun dagoen kopia.



Aranburu, baserri ederra da. Isusigarra auzora begira dago, Albisteiren parean, Lagun artea errota mugitzen duen erreka bestaldetik. Inguruan pinadiak badira nagusi ere, baserri bueltan zelaiak ditugu.

LEHIAKETA



Julio Iglesias ezaguna zela? Mikel Laboa ere ez da gutxiagorako.

Karta asko jaso ditugu erantzun zuzenarekin. Bai, Mikel Laboa zen kantaria, Euskal Herriko kantagintzaren patera. Zenbait kantarik une latzetan bere aukera egin zuten bere herriko hizkuntzari doinua jarriz eta horietakoa dugu Laboa. Argazkia bere lau-bost diskatik atera dugu, benetan diska entzungarria atera dituen beste disken moduan. Mikel Laboak medikuntza ere ikasi zuen baina gehienok bere gitarrari lotua irudikatzen dugu. Kantari maitatua bai gazteentzako bai helduentzako. Ea urte askoan bere doinuez gozatzeko aukera dugun.


Marisol Alberdik ere bazekien nonbait nor zen eta guri kartatxo bat idaztearren nahi duen lagunarekin afaltzera joango da Bolatoki tabernara.

Besteok badakizue, segi idazten. Hurrengoa zu izan zaitezke.

Kantariak alde batera utzi eta objektu bat jarri dugu oraingoan. Etxe askotan dagoela ere aurreratuko dizuegu errezagoa izan dadin. Guri behizat nahikoa buruhauste ematen digu zorioneko _____ ak.

Idatzi *Goibekokale* aldizkarira

Salbador kalea 2 Kultur Etxea
20690 Elgeta



Izena eta abizena: _____
Erantzuna: _____
Bizilekua eta telefonoa: _____



KOMIKIA





Argazkia: Isidro Askasibar

"Hauxe da despedida"

Ez zen makala izan egin zuten bazkaria. Soñua eta parranda giroa ez ziren falta izan. Isidro Askasibarrek Utzi digun argazkia 1956an ateratakoa da. Plaza ondoko tabernan egin zen despedida, Zeleta tabernan. Martin Osororen despedida da eta izen guztiak lortu ez ditugun arren hemen dituzue ezkerretik eskuinerako hurrenkeran lortu ahal izan ditugunak:

Ezkerraldean dauden mutikoak Txanbolineko hiru anaiak dira eta Idigorasen alabetako bat ere beraiekin dago.

Goiko hilaran: "Antonio Oianguren, Juanito Retolatza, Fermin Garitano eta Aldai gainekoaren ondoan Jose Irazabal eta Anastasio Markaide.

Beheragoko hilaran: Sabino Gallastegi (Txaraka), Luis Mari Retolatza, Isidro Askasibar, Kanuto Askasibar, Antonio Askasibar, Lorentzo Askasibar, Pedro Retolatza, Karlos Sagastigutxia, Juan Markiegi, Jose Mari Egizabal eta Iñaki.

Azpirago: Iñaxio Gallastegi, Bixente Askasibar, Antonio Iturrigaztelu, Sabino Arantzeta, Sabino Gallastegi (Santos), Lazaro Egizabal, Martin Osoro, Felix Arantzabal, Patxi Irtzabal, Migel Oianguren, Juan Irtzabal, Antonio Alberdi, Feliz Arantzeta, Jose Luis Arantzeta eta Juan Arrazola.

Beheko hilaran: Migel Elorriaga, eibartarra, Jose Osoro, eta beste eibartarraren ondoan Angel Markiegi.

ELGETAR GUZTIOI



EGUBERRI ZORIONTSUAK
ETA URTE BERRI ON,



PAKEAN ETA
ALAITASUNEAN.

Elgetako Herri Batasuna

EUSKAL PRESOAK

Urtarrilaren 5ian

INTXORTAN

10:30etan TXALAPARTIA

11:00etan BERTSOLARIKAK

gero saldia eta sardaua.

bukatzeko hitzaldia.

EUSKAL HERRIRA!